

Abenduak 1 larunbata		Arratsaldean kontu kontari Rai Bueno kontalariak 6 urtetik gorako umeen artean irakurzaletasuna piztuko du eta horretarako ahozko tradizioan gordeta ditugun errekurso miragarriak erabiliko ditu.	IPUIN KONTALARIA LIBURUTEGIA
Non: Haur liburutegian, 17:30ean, doan.			
Abenduak 2 igandea		Nocturna Zer gertatuko litzateke bat-batean argi guztia itzaliko balitz? Ideia horren bueltan eraiki dute Victor Maldonado eta Adria Garcia gazteek (Bartzelona, 1978) «Nocturna» filma, abenduaren lehen igandean euskarazko bertsioan Ermuan ikusgai izango duguna.	HAUR ZINEMA KULTURA
Non: Ermua zineman. 17:00etan, 2 €			
Abenduak 3 astelehena EUSKARAREN EGUNA		Haurtzako Herri kirolak Astelehena dugu Euskararen eguna. Ikastetxeetan hainbat jarduera burutu eta gero, Orbe kardinalaren plazan Kulki taldearen eskutik umeentzako jolasak burutuko dira. Zatoz plazara!	JOLASAK EUSKARA SAILA
Non: Orbe kardinalaren plazan. 16:30ean. (Euria eginez gero batzokian)			
Abenduak 10 larunbata		Euskal produktuen katalogoa Filmak, musika, informatika, jostailuak, liburuak, komikiak, aldizkariak, DVD... euskaraz badago zer erosi eta zer oparitu. Merkatuan dauden produktuen katalogoa nahi baduzu jo ezazu Euskara Sailera.	KANPAINA EUSKARA SAILA
Non: Ikastetxeetan, Euskara Saila			
Abenduak 10-14		Immigrazio Tailerra DBHko lehenengo mailako ikasleei zuzendutako tailer honek, gazteak etorkin baten azalean jarriz, gogoeta egitea du helburu, hau da, norberak besteekiko nola jokatzeko duen eta horrek duen eraginez hausnarketa egitea.	TAILERRA KULTURA
Non: Liburutegian			
Abenduak 15 larunbata		Titirikontu-kontari Ipuinak. Ipuin politenak eta txotxongiloak. Txotxongilo harrigarriak hobeto ulertu eta imajinatu ahal izateko. Hori baino ez, baina hori dena guztia. Gorakada taldearen eskutik.	HAUR ANTZERKIA KULTURA
Non: Lobiano Kulturgunean, 17:30ean, 2€			
Abenduak 17 Urtarrilak 4		Olentzeroari gutuna Gabonak eta urte hasiera dela eta nork ez du egitasmo eta desio berriak pizten?. Liburutegian dagoen Olentzeroari idatziozu gutuna eta parte hartzaile guztien artean zozketatuko diren sariren bat eskuratu ahalko duzu. Ume, gazte zein nagusientzako.	PARTE-HARTZEA EUSKARA SAILA
Non: Liburutegian			
Abenduak 18-19-20		Jostailu erakusketa Txatxilipurdiren eskutik merkatuan dauden euskal produktuen erakusketa guraso guztiei zuzendurik egingo da. Oso aukera ona Gabonetan egiten diren opariei buruzko aholkuak jasotzeko	ERAKUSKETA EUSKARA SAILA
Non: Lobiano Kulturgunea, 17:30etatik 20:30etara			
Abenduak 19 asteazkena		Megairakurlea "Megairakurleak" lehiaketako sari-banaketa. Irailtik aurrera liburuak irakurri eta Liburutegiak banatu duen agenda betetzen joan diren 6 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek sari piloak jasoko dute.	SARI-BANAKETA LIBURUTEGIA
Non: Lobiano Kulturgunea, 18:00etan			
Abenduak 20 osteguna		Gabonetako aisialdi ekintzen aurkezpena Abenduaren 26an abian jarriko diren umeentzako ekintzen egitarauaren aurkezpena izango da, hauetan izena ematen duten umeen gurasoei azalduko zaie zein ekintza mota egingo diren eta eurek dituzten zalantzak eta galderak planteatu ahalko dituzte.	AURKEZPENA EUSKARA SAILA
Non: Lobiano Kulturgunea, 19:00etan (Auditorium)			
Abenduak 21 ostirala		Bizkaiko Haur kantua Bizkaiko Haur Kantari Txapelketan parte harturiko taldeak entzun ahal izango ditugu eta baita, ekainaren 3an, Arriaga Antzokian Bizkaiko Finalista gelditu ziren Ermuko taldeak eta solistak ere.	KANTALDIA ALBOKA MUSIKA E.
Non: Ermuko zineman, 18:00etan			
Abenduak 24 astelehena		Olentzero Abenduaren 24an ikastetxeek antolaturik Olentzero ibiliko da kalerik kale.	KALEJIRA IKASTETXEAK
Non: Orbe kardinalaren plaza, 18:00etan			

Abenduak 26 asteazkena		Txanogorritxu eta marrubi zaporeko gaztainak Glu-Gluren eskutik, irudi eta musikarekin batera, Txanogorritxoren ipuin klasikoa antzezlan goxo eta argia bihurtzen da. Ilobei ipuinak kontatzen dizkieten aiton-amonei omenaldia da.	HAUR ANTZERKIA KULTURA
Non: Ermua zineman, 17:30ean, 3 €			
Abenduak 26-27-28 Urtarrilak 2-3-4		Gabonetako aisialdi ekintzak Sei egunetan zehar, Antxintxiketan taldearen eskutik 6-14 bitarteko umeek aukera izango dute oso ondo pasatzeko: Patinatza, Karpinera eta Bilboko PINera joateaz gain, jolasak eta hainbat eskulan ere egingo dituzte.	GABONETAKOAK EUSKARA SAILA
Zer: Hainbat jarduera.			
Abenduak 29 larunbata		Ermuan kantuan Joan den hilean martxan jarritako ekimenari jarraituz, eta hilez hil burutzeko asmoarekin kantuan aritu nahi duen orok hemen du aukera, kantatzeko, ikasteko zein soilik entzuteko edo ondo pasatzeko.	KANTU KALEJIRA EUSKAL BIRUSA
Non: Orbe kardinalaren Plaza, 12:30ean			
Abenduak 29 larunbata		Irriz Irri Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo hirukote xelebrea indarberritu eta gaztetuta dator Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren eskutik. Abesti eta barreek ikuskizun berri hau osatzen dute.	PAILAZOAK KULTURA
Non: Ermua zineman, 17:30ean, 3 €			
Abenduak 30 igandea		Betizu eta urrezko zintzarria Lagun baten bila abiatzen diren pertsonaia batzuen abentura kontatzen duen filma da. Bidai horrek, halabeharrez, "Urrezko Zintzarriaren" misterioan murgilduko gaitu: Urrezko Zintzarria jotzen duenak gainontzeko behiak bere menpean izatea lortuko du.	HAUR ZINEMA KULTURA
Non: Ermua zinema, 17:00etan, 2 €			
Abenduak 31 astelehena		Olentzero Urteari amaiera emanez Txindurri dantza taldeak kalejira egingo du gure kaleetan zehar.	KALEJIRA TXINDURRI
Non: Orbe kardinalaren Plaza, 18:00etan			

